

KANPAINAREN OINARRIAK

ZURE OSASUN-ASEGURUAK GEHIAGO EMATEN DIZU

2024KO IRAILA - 2025EKO URTARRILA

Agiri honek «ZURE OSASUN-ASEGURUAK GEHIAGO EMATEN DIZU» osasun-aseguruen kanpainako sustapenen baldintzak bildu eta zehazten ditu. Aseguruok, konpainiaren oinarritzko arauak ez ezik, kanpainaren baldintzak ere bete beharko dituzte.

1.- Kanpainaren datak

Sustapena 2024ko irailaren 18an hasi eta 2025eko urtarrilaren 31n amaituko da. Hala ere, eten edo bertan behera utzi ahal izango da edozein unetan, horretarako bidezko arrazoirik bada. Sustapenaz baliatu ahal izateko, 2024ko irailaren 18tik 2025eko urtarrila 31ra bitartean kontratatu behar dira polizak (efektu-datak, berriz, 2025eko otsailaren 28ra arteko muga izango du).

2.- Eskaintza eta produktuen baldintzak

Bezeroek abantaila hauek izango dituzte, kanpainaren indarraldian berorren baldintzak betetzen dituzten kanpainako adarretako OSASUN-polizaren bat kontratatuz gero.

Zenbateko bat jasotzea, 2024ko irailaren 18tik 2025eko urtarrilaren 31ra bitartean (efektu-datak 2025eko otsailaren 28ra arteko muga izango du) kontratatutako adar hauekiko aseguru berri bakoitzagatik:

- SANITAS MAS SALUD Osasun Asegurua: 100 € itzuliko dira aseguru berria kontratatzeagatik (koordainketa-modalitate guztietan). Gutxieneko primarik gabe.
- SANITAS MAS SALUD FAMILIAS Osasun Asegurua: 100 € itzuliko dira aseguru berria kontratatzeagatik (koordainketa-modalitate guztietan). Gutxieneko primarik gabe.
- SANITAS PROFESIONALES Osasun Asegurua: 100 € itzuliko dira aseguru berria kontratatzeagatik (koordainketa-modalitate guztietan). Gutxieneko primarik gabe.
- SANITAS UNICO Asegurua: 75 € itzuliko dira aseguru berria kontratatzeagatik. Gutxieneko primarik gabe.

3.- Kanpainaren beste baldintza batzuk

- Arriskuak konpainiaren kontratazio-arauen barruan hartuko dira.
- Polizak urtebetekoa izan beharko du, eta berriztagarria.
- Ordainketak LABORAL Kutxan egon beharko du helbideratuta.
- Abantailak lortzeko eskubidea ematen duen poliza ordaindu ezean, aseguru-konpainiak edo dagokion entitateak eskubidea izango du bezeroaren kontuan egindako ordainketa berreskuratzeko.
- LABORAL Kutxaren kanal guztien bidez kontratatzen diren aseguruetarako balio du eskaintzak.
- Eskaintza hau bateragarria da Sanitasen gainerako kanpainekin.
- Kontratutako aseguruaren ordainagiria kobratu ondoren 90 egunetan egingo dira diru-itzulketak.
- Sustapenaren muga: 300 eragiketa.

4.- Sustatzailea

Caja Laboral Bancaseguros SLU, banka-aseguruetakotako operadore lotetsia. Administrazio Erregistro Berezian inskribatuta dago, OV-0072 klabearekin. Arriskuaren aseguratzaila: Sanitas SA. Erantzukizun zibila eta finantza-ahalmena estalita ditu, indarrean dagoen legeriaren arabera. Kontsultatu aseguratzailak hemen: www.aseguruak.laboralkutxa.com.

5.- Aplikazio-eremua

Kanal hauek erabiliz kontratatutako aseguruetan aplikatuko da kanpaina: www.laboralkutxa.com webgunea, aseguruetan espezializatutako telefono bidezko arreta-zentroa (901 100 200) eta Caja Laboral Popularren banka-aseguruetakotako operadore lotetsia den Caja Laboral Popularren banaketa-sarea —Bitartekarien Erregistro Administratibo Berezian dago inskribatuta, C572F20022109 zenbakiarekin—.

BOZGORAILU-KARGAGAILUEN ZOZKETA

1.- Erakunde antolatzailea eta saria

Caja Laboral Popular Coop. de Créditos —aurrerantzean, LABORAL Kutxa—, F75076935 zenbakidun IFK eta helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) —Jose Maria Arizmendiarieta zk.g., 20500— duenak, sustapen-helburuetarako nazio-mailako ZOZKETA bat egingo du www.laboralkutxa.com/eu/sustapenak-eta-zozketak orrialdean, 18 urtetik gorako bezeroen artean, 5. atalean, «Parte-hartzaileak» izenekoan, jasotakoaren arabera. Mugikorrerako 10 bozgorailu-kargagailu zozkatuko dira.

2.- Zozketaren esparrua eta doakotasuna

Zozketa hau 1991ko azaroaren 8ko 4/1991 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoan joko arautzen duenak, ezarritakoari jarraikiz antolatu da, eta doakoa eta borondatezkoa izango da. Hortaz, saria eskuratu ahal izateko, ez da kuota edo kopuru gehigarririk ordaindu behar.

3.- Zozketaren xedea eta prozedura

Zozketa batean 10 sari emango dira (mugikorrerako 10 bozgorailu-kargagailu), 4. atalean, «Iraupena» izenekoan, adierazitako zozketaren epealdian. Irabazleak aukeratutako LABORAL Kutxaren bulegoan jasoko da saria.

Zozketan parte hartzeko, baldintza hauek bete behar dituzte erabiltzaileek:

- Kontuaren titularrak diren 18 urtetik gorako pertsona fisikoek hartuko dute parte zozketan, baldin eta 2024ko irailaren 18tik abenduaren 31ra bitartean (biak barne) osasun-aseguruaren proiektu bat eskatzen badute.
- Zozketaren lege-oinarrietan eta LABORAL Kutxaren bulegoetan nahiz www.laboralkutxa.com/eu/sustapenak-eta-zozketak orrialdean eskuragarri dagoen prozedurari jarraitzea.
- Irabazleak saria onartzen badu, LABORAL Kutxak eskubidea izango du haren legezko tutoreen izen-abizenak argitaratzeko.

4.- Iraupena eta eremua

Jarduera hau Espainiako lurraldean gauzatuko da.

Zozketan parte hartzeko epea 2024ko irailaren 18tik abenduaren 31ra bitartekoa izango da (biak barne).

5.- Parte-hartzaileak

Honako hauek hartu ahal izango dute parte zozketan:

– 18 urtetik gorako bezeroek, baldin eta posta elektronikoz jasotako galde-sorta, zuzendariei eta erantzukizundun goi-karguei zuzendutako produktu eta zerbitzuak hobetzeko helburua duena, betetzen badute.

Honako hauek ezin izango dute parte hartu:

– Ezingo dute parte hartu LABORAL Kutxako langileek, ezta taldeko, partaidetzapeko eta antzeko sozietateetako langileek eta kanpainarekin zuzeneko lotura duten pertsonen ere.

Egoera hauek batean dauden LABORAL Kutxaren bezeroek ez dute parte hartzeko edo saria irabazteko eskubiderik izango:

- LABORAL Kutxaren aurrean berankortasun-egoeran edo beste edozein egoera irregularretan daudenen zozketa indarrean dagoen bitartean, zozketa egiten den egunean edo saria emateko unean.
- LABORAL Kutxaren iritziz iruzurrez jokatzeko duten zozketan.



6.- Irabazlea(k) eta ordezkoko aukeratzea eta saria jakinaraztea eta ematea

Aurreko 3. atalean zehaztutako sariaren zozketa 2025eko urtarrilaren 7an egingo da, ausazko sistema informatiko baten bidez.

Bidezko arrazoiren batengatik egun horretan ezin bada zozketa egin, hurrengo egun baliodunean egingo da.

Saria onartzen duen ala ez jakinarazi beharko dio saridunak LABORAL Kutxari, telefonoz, posta elektronikoz edo bulego batean sinatutako hartu-agiriaren bidez, saria argitaratzen edo jakinarazten den datatik gehienez egun natural bateko (1) epean. Datu-basean dituen bezeroaren datuak erabiliko ditu Entitateak.

Parte-hartzaileak sariari uko egiten badio, edo berarekin harremanetan jartzerik ez badago zozketa egin eta 3 egun balioduneko epean, ez du inolako ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

Saridunak sariari uko egiten badio, berarekin harremanetan jartzerik ez badago zozketa egin eta 3 egun balioduneko epean, zozketaren baldintzak betetzen ez baditu edo lehenago azaldu den baimena ematen ez badu, saria ordezkoen zerrendako lehen postuan dagoenari esleituko zaio, zozketan ateratako ordena errespetatuz. Gehienez, bost (5) ordezko izendatuko dira. Saridunak ezingo du sari horren ordeze beste bat eskatu.

Sariduna saria jaso aurretik hiltzen bada, helburu horrekin berariaz aukeratutako ordezkoari emango zaio.

7.- Sariaren zerga-sistema

Zozketa honetako sariak zerga-tratamendu hau izango du: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 35/2006 Legean, 439/2007 Errege Dekretuan eta kasuan kasuko PFEZren inguruko zerga-araudian aurreikusitakoa. LABORAL Kutxak ordainduko du sariari aplikatuko zaion zerga-atxikipenaren zenbatekoa.

Era berean, LABORAL Kutxak bere gain hartuko ditu Zerga Administrazioaren aurrean dagozkion informazio-betebeharrak.

8.- Iruzkina edo iritziak argitaratzea

Ez da onartuko iruzkin edo iritzirik, horien edukia desagokitzat jotzen bada, iraingarriak, laidogarriak edo diskriminatzaileak badira, edo hirugarrenen eskubideak urra baditzakete. Era berean, ez da onartuko pertsona baten aurkako iruzkinik, baldin eta ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea urratzen badu. LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik, parte-hartzaileek zozketan egiten dituzten iruzkinak beste parte-hartzaile batzuen sentsibilitatea mintzearen ondoriozko kalteengatik.

9.- Erreserbak eta mugak

Iruzurra egin dela ulertuko da kasu hauetan, baina ez horietan bakarrik: webgunearekin zerikusirik ez duten aplikazioen balizko erabilera detektatzen bada, zerbitzariari gehiegizko kontsulta-kopurua egiten bazaio eta itxuraz gehiegizkoak edo asmo txarrekoak diren portaerak antzematen badira.

Zozketan zehar aipatutako egoeraren bat egiaztatzen bada, parte-hartzailea zozketatik kanpo geratuko da zuzenean, eta, saria eman bazaio, galdu egingo du.

LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik, saridunek emandako datuetan akatsen bat badago eta horrek haien identifikazioa galarazten badu.

LABORAL Kutxak ez du inolako erantzukizunik izango, saria ematean edo erabiltzean gertatzen diren gorabeheren ondorioz, ezta berari ez dagozkion arrazoiengatik parte-hartzaileak saria jasotzean gertatzen diren atzerapen edo hutsegiteen ondorioz ere.

Pertsonaren batek zozketaren manipulaziotzat edo faltsifikaziotzat har litekeen edozein egintza egiten badu, LABORAL Kutxak eskubidea izango du haren aurka ekintza judizialak abiarazteko.

LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik, zozketan parte hartzeko erabiltzen diren zerbitzuak aldi batean erabiltzerik ez egotearen edo haien funtzionamendua eten izanaren, erabiltzaileek horiek iruzurrez erabiltzearen eta, bereziki baina ez esklusiboki, Internet bidez orrialdeetan sartzean eta parte hartzeko erantzunak bidaltzean izandako akatsen ondorioz gertatzen diren kalte-galerengatik.



